

Urrunekoak gertu

INTER TRUKE LARRABETZUN. Andaluziako, Hungariako, Portugalgo eta Euskal Herriko gazteak batu ditu asteen Hori Bai! alkarteak



INIGO AZKONA

BARAZKI BAZKARIA. Errekaldeko Kukutza gaztetxean bazkaldu eben, ondo gustora ganera.

Erredakzinoa | BILBO

HARRIDUREA

Bilbora etorri ziran atzo, garraio publikoan Larrabetzuko Hori Bai! alkarteak antolatu dauen Inter Truken —Nazinoarteko Gazte Topaketak— parte hartzen dabenez neska mutilak. Guggenheim Bilbao Museoa ikusi eben hasteko. Atzeritarrek Bilbon ezagutzen dabenez ingurua ikusi eben hasteko. Guztira, 30 pertsonako taldea ebilen Bizkaiko uriburuko kaleetan.

Hori Bai! alkarteak hantx hona astebetean ibiliko diranak hiru lekutatik etorri dira: Andaluziatik, Portugaldik eta Hungariatik. Euskal Herriaren errealidade desbardinak erakustea da helburua.

Beste edozein atzeritarrek egin leiken bidea egin eben gero. Kale Nagusi ingurura joan eta han bakotxaren interesen arabera banatu ziran taldeak. Batzuek erosketak eukiezan gogoan. Beste batzuek Kafe Antzokia ikusteko aukerea euki eben. «Danerik dago taldean. Leku eta inguru sozial desbardinak dira. Andaluziatik etorri diranek antzerkia gogoko dabe, eta Gabriel Arestigaz, esate baterako, oso interesauta dagoz».

Dana dala, ez ziran gainontzeko atzeritarrek ikusten dabenez Bilbogaz bakarrik gelditu. Egurdiko jatordua Errekaldeko Kukutza gaztetxeke jantokian egin eben. «Han egiten dan moduan jan eta gero mahaia batu eta harrikoa egin behar

Azkenengo egunetako eguraldiak harrituta daukaz atzeritarrek, baina atzo sirimiria zer dan be ikasi dabe

izan dogu. Gustau jake», dino Patxi Gezuragak, Hori Bai! alkarteak. Arrastian Mikel Martinez Maskaradako aktore-agaz, batzar bat egin eben.

Azkenengo egunetako eguraldi onagaz harrituta dagoz atzeritarrek. Hondartzan bainua hartzeko denporea be euki dabe. Dana dala, atzo sirimiria zer dan be ikasi ahal izan eben Hori Bai! alkartearen izenean Patxi Gezuragak jakinarazo ebanez.

Gaur Bizkargi mendi igongo dabe, han bertan bazkaldu eta Larrabetzura itzuliko dira Euskal Herriko egoera soziopolitiko eta kulturalaren inguruan eztabaidatzeko.

Danerik batu dabe zazpi eguneko egitarau horretan. Gernika, Lekeitio, Errigoiti eta Bilbo ikusi ditue besteak beste. Arratiara joango dira bihar. Parke-txea, Ekomuseoa eta Gorbeia-ko kurutzaren urtemugea dala eta gertau dabenez erakustekoa ikusi ahal izango dabe. Diman bazkaldu eta Baltzolakoko kobetara joango dira.

Domekara arte egongo dira. Egun horretan trenez batzuk, eta hegazkinez beste batzuk, euren herrietara itzuliko dira.

LABURREAN



XOUSE SIMAL

Girotalde programako beharginen kontra egin dau PPK.

BARAKALDO

Beharginak aukeratzen parte hartzeko erea daukala erantzun deutsu Inguraldek PPri

Barakaldoko Inguralde udal enpresako beharginak kontratatetako orduan, alderdikeria dagoela dinoak diptikoak banatu ditu PPK herri osoan. Inguraldeko beharginek erantzun egin deusie Alderdi Popularrari, eta gura izan ezkerko beharginak aukeratzeko probetara joan ahal dala gogoratu deutsu. «Deitzen doguz, baina ez dira etorten», azaldu dabe langileek.

BASAURI

Zergak % 2 igotea onartu dabe, PSE-EEren laguntzeagaz

Basauriko Udalak zerga gehienak % 2 igotea erabagi dau. Horretarako, aldeko botoa emon eben EAJk, Eak eta EB-IUk. PSE-EEK bere babesa emon eutsen proposamenari. Horren aurrean, PPK eta Batasunak kontrako botoa emon eutsen zergat igoteko proposamenari. Loli de Juan zinegotzi sozialistak udalbatzarrean azaldu ebanez, Udal gobernua onartu egin dau zergak igoteko proposamenarean PSE-EEK eskatutako aldaketeta sartzea, eta horregaitik emon eben aldeko botoa. «Guk orain aste batzuk egin genuen proposamenaren oso antzerakoa da, ia berbera», esan eban Loli de Juanek. PPK eta Batasunak zergak ez dirala igon behar azpimarratu eben.



XOUSE SIMAL

Zemendi amaieran, Usansolon antzerako ekimena izango da.

GALDAKAO

Gazteen artean irakurtea sustatzeko jardunaldiak egingo dabez Torreabab kultur etxean

Torreabab kultur etxeak gazteen artean irakurtea bultzatzeko jardunaldiak hartuko dauz hilaren 13an, 20an eta 27an. Jardunaldiak gaztetxoan liburutegian izango dira, arratsaldeko 17:30an. Udal arduradunek azaldu dabenez, kontu kontalariak erabiliko dabez irakurketa sustatzeko. Zemendi amaieran, antzerako jardunaldia egingo dabe Usansolon.